



URTEROKO LANA.

Bixente Barandiaran

1. Idazten astera noa barrena poztuta Errenteriako lagunez ez negon aztuta eskutitz bat iritsi zait atzo nere eskuta ez det bazterreratuko merezi ez du ta
2. Indar berrituz zatozte jartzen nazu bertan ez dakizu nik orrekin zer poz artzen detan zueri lagundu nairik saiatuz benetan ontantxe gozatzen det nik mundu onetan
3. Jartzen didazu Madalenak laster dirala bidean Jaunak nai badu ez nago ori uzteko idean urteak akordau gabe badijoazkit aidean sarri pentsatzen asia nago noiz arte ote gean
4. Oraindik behintzat ontan saiatuz aletin eskuan dagon txoriak ez dezan alde egin ontan nik al dan guzia nai nuke ba egin Oarso errebista orixe goruntz igo dedin
5. Aber zabaldutzen degun etxe ta auzoan askoren arteko lana au degun kasoan zabaldu dezagula ba anaitasun osoan ondo ikusten baita eindako pausoan
6. Poza ematen du gaur lan ontan asteak urtetik urtera gora ola ikusteak on egingo baitigu zerbait ikasteak aber azten zaizkigun momentu tristeak
7. Ez naute aspertutzen nere gogozko lanak amaika ordu baditut gustora emanak askotan ezin bukatu asitako danak urrengo egunerako gaur ezin diranak
8. Amulleta ori daukat nik nere goguan or bilduko zerate betiko moduan pozik egon liteke ai zuen onduan bañan afaltzera ni ezin neike jua

9. Gustora ekin diot gaur
nik emen lan oni
naiz ta etxean gelditu
bearrean neroni
urrutitikan agur eginda
orrenbeste laguni
orko mokau goxoak
ez bait zait komeni

10. Orra zer dakarren emen
mundua zartzeak
pozik jango eta ezin
pentsatzen jartzeak
nola alperrik dan berriz
jenioz txartzeak
asko lasaituko gaitu
alaitsu artzeak

11. Al degun artean beintzat
ez dezagula etsi
arpegi alaia beti
danai erakutsi
osasun au bajatzen
ez deigula utzi
lengoan irautea ere
ez baitegu gutxi

12. Eskutitz ontan badator
neretzat zenbat berri
al banezake ordainak
nai nituzke jarri
zuek dituzuen asmoak
nik ditut pozgarri
ondo atera ditezela
lagunduz alkarri

13. Ikusten zer errebista
daukagun urtean
mereziko du beragatik
lana egin tartean
zeinek ez du sartu nai
onekin partean
aber gorago jasotzen dan
guztion artean

14. Bide ontatikan danak
bear degu segi
ala ere ez da izango
beretzat geiegi
al dana egite auxe
gustatzen zait neri
bukatzean esateko
gora Errenteri

15. Poeta baten urtemuga
emen dezu aitatu
olako gizon sonatu bat
nola ez maitatu
berarentzat bertso au
nai nuke kantatu
ondo merezi dulako
nai det aipatu

16. Ain beste gizon aundi
eman du Errenterik
poeta onak ziran da
berdin bertsolarik
berriz sortu litezke
ez dago dudarik
bainan ez da erraza
len banion oberik